

**EUSKARA LANTZEKO
HOBEKUNTZA-IKASTAROAK (2021)
EUSKARA ZERBITZUA**

IKASTAROEN PROGRAMAK eta XEHETASUNAK

[OL1] “ON LINE” IKASTAROA

**“EUSKARA ZERBITZUAREN HIZKUNTZA-AHOLKUAK
(EHULKU)”**

IRAKASLEA: Jesus Mari Makazaga Eizagirre (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua)

ESKOLA ORDUAK: 15 ordu, 3 aste

EGUNAK: 2020ko urtarrilaren 18tik otsailaren 5era

IKASLEAK: 25 gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA:

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat.

HELBURUAK:

Badira hamabost bat urte UPV/EHUko Euskara Zerbitzua unibertsitateko erkidego euskaldunari aldian-aldian posta elektronikoen bidez hizkuntza-aholkuak ematen hasi zela. Gaur egunera arte emandako aholku horiek arloka ordenatuta berrikusi eta landu nahi dira ikastaro honetan, han emandako informazioa finkatzen laguntzeko.

EDUKIAK:

- Sintaxiari eta perpausen antolaerari dagozkion aholkuak.
- Morfologia-egiturak finkatzen laguntzeko aholkuak.
- Ortotipografiari eta puntuazioari buruzko aholkuak.
- Hiztegia lantzen dutenak.

METODOLOGIA:

Internet bidezko ikastaroa da, “on line” erakoa.

Euskara Zerbitzuak emandako hizkuntza-aholkuen bilduma hartuko da oinarritzat, bai goian aipatutako argitalpena, bai sarean dauden aholku guztiak:

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulkuren-aholku-guztiak>

Aholku horiek arloz arlo aurkeztuko eta azalduko dira: sintaxia, morfología, hiztegia eta ortotipografia. Auzi bakoitzari buruzko azalpen teoriko laburrak eta argiak emango dira, eta ariketa praktikoen bidez finkatuko dira ezagutza horiek.

Ikastaroko foroa erabiliko da kasuan kasuko zalantzak argitzeko eta auzi bakoitzari buruzko jakingarri gehiagoren berri emateko (Euskaltzaindiaren arauak, EIMA batzordearen aholkuak, Euskaltzaindiaren gramatika jasoak...).

[OL2] “ON LINE” IKASTAROA

“INTERNETEKO HIZKUNTZA-BALIABIDEAK”

IRAKASLEA: Julio García García de los Salmones (Euskara Zerbitzua)

ESKOLA ORDUAK: 20 ordu, 4 aste

EGUNAK: 2020ko otsailaren 1etik 26ra

IKASLEAK: 25 gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA:

UPV/EHuko irakasleentzat-ikertzaileentzat.

IKASTAROAREN XEHETASUNAK:

Maiz, gure eguneroko jardunetan, zalantzak sortzen zaizkigu honelako edo halako egituraren zuzentasunaz edo haren erabileraren egokitasunaz, eta, batzuetan, forma edo erabilera baten hautua egiten dugu segurtasun handirik gabe.

Interneten, erabaki edo hautu hori hartzen lagundu diezaguketen hainbat baliabide ditugu eskura. Ikastaro honen helburua da Interneteko baliabide horietako batzuk ezagutzera ematea (hiztegiak, corpusak, itzulpen-memoriak, aholkularitza-zerbitzuak, webgune didaktikoak, eta abar) eta, halaber, haien nondik norakoak azaltzea: zer aurkitu dezakegun haietan, nola erabiltzen diren...

METODOLOGIA:

Internet bidezko ikastaroa da, “on line” erakoa.

Lau saiotan aurkeztuko dira unitateak: saio bat aste bakoitzeko. Lehen hiru saioetan, Euskaltzaindiaren, Elhuyarren, UPV/EHuko Euskara Institutuaren eta beste erakunde batzuen webguneetan diren baliabideak izango ditugu hizpide eta ikasgai, lau sortatan bilduak: hiztegiak, corpusak, aholkularitza-zerbitzuak eta baliabide didaktikoak. Laugarren saioan (azken astean), UPV/EHuko Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen hizkuntza-baliabideetan jarriko dugu arreta: EHULKU, EHULKUren aholkuak, EHUskaratuak, GAIKA...

Baliabideen azalpenekin batera, ariketa praktikoak egingo dira, ikasketaria Interneteko baliabide horien erabileran trebatzeko.

[OL3] “ON LINE” IKASTAROA

“TESTU AKADEMIKOAK ITZULTZEN TREBATZEKO LANTEGIA”

IRAKASLEA: Iñigo Roque Eguzkiza (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua)

ESKOLA ORDUAK: 20 ordu, 4 aste

EGUNAK: 2020ko martxoaren 1etik 26ra

IKASLEAK: 25 gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA:

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat.

HELBURUAK:

- Testuen aurrean, itzultzeko jarrera egokiaz jabetzea.
- Askotariko itzulpen-prozedurak erabiltzen ikastea.
- Gaztelaniatik euskaratzean izaten diren zenbait interferentzia identifikatzea eta konpontzea.
- Testu akademikoen nolakotasunak bereiztea, eta xede-testuan zaintzea.
- Aukera lexikoen inguruan gogoeta egitea, baliabide espezifikoek baliaturik.
- Testu akademikoak euskaratzeko sareko baliabideak ezagutzea eta erabiltzea.

EDUKIAK:

- Itzulpen-prozedurak: hitzez hitzekoak eta zeharkakoak.
- Hizkuntzen arteko zubigintza (ES>EU): zenbait arazo eta konponbide.
- Testu akademikoen berezitasunak: esaldigintza, terminologia eta beste.
- Itzultzaileentzako sare-baliabideak: estilo-liburu, hiztegi eta corpusak.

METODOLOGIA:

Internet bidezko ikastaroa da, “on line” erakoa.

Era praktikoan landuko dira ikastaroko edukiak: lehenik, azalpen laburrak banatuko dira, idatzian, eta ariketen eta testu errealek bidez landuko dira ondoren.

Ikastaroko foroa tresna nagusia izango da ariketak lantzeko eta zalantzak argitzeko, eta aztergaiak proposatzeko baliatuko da aldiro, saioei bizitasuna eransteko.

[OL4] “ON LINE” IKASTAROA

“EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZAN SAKONTZEN”

IRAKASLEA: Manu López Gaseni (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua)

ESKOLA ORDUAK: 15 ordu, 3 aste

EGUNAK: 2020ko maiatzaren 3tik 28ra

IKASLEAK: 25 gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA:

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat.

Euskal testuak idaztean zalantzak dituen edonorentzat: euskararen gramatika eta Euskaltzaindiaren arauak ezagutu arren, haietan sakondu nahi duen edonorentzat. Lehentasuna izango dute "Euskaltzaindiaren araugintza berria" ikastaroa aurretik eginda daukatenek.

HELBURUAK:

- Euskaltzaindiaren araugintza berriko (1994 urteaz geroztiko) arau nagusiak gogoraraztea.
- Euskaltzaindiak erabili dituen irizpideen eta helburuen berri ematea.
- Hizkuntzaren zenbait arlotako arau eta gomendioei buruzko ezagutza praktikoa eskaintzea.

EDUKIAK:

- Sarrera: Euskaltzaindiaren helburuak eta irizpideak. Arau eta gomendioen ikuspegi orokorra.
- Hitz-eratorpen eta hitz-elkarketari buruzko arauetan era praktikoa sakontzea.
- Aditzari buruzko arauetan sor daitezkeen zalantzak lantzea.
- Sintaxiari buruzko arauetan sakontzea.

METODOLOGIA:

Hiru saiotan aurkeztuko dira unitateak eta eskainiko dira azalpenak. Batez ere praktikoa izango da ikastaroa: ikasleak astean-astean landuko ditu irakurgaiak eta egingo ditu ariketak.

Ikastaroko foroa erabiliko da zalantzak argitzeko eta araugintzari buruzko bestelako eztabaidetarako.

[OL5] “ON LINE” IKASTAROA

“UNIBERTSITATEKO TESTUAK: OHIKO ZUZENKETAK”

IRAKASLEAK: Kenari Gómez Zubia (UPV/EHUko Euskara Zerbitzua)

ESKOLA ORDUAK: 20 ordu, 4 aste

EGUNAK: 2020ko urriaren 1tik azaroaren 5era

IKASLEAK: 25 gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA:

UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat.

HELBURUAK:

Unibertsitateko testuak idaztean agertzen diren arazorik ohikoenak aztertzea, eta haiek konpontzeko aukera batzuk lantzea.

EDUKIA:

Batik bat testu-estrategiak aztertuko dira: esaldien antolakuntza, lokailuen eta juntagailuen erabilera, itzulpenetan agertzen diren oztopoak, eta abar.

METODOLOGIA:

Internet bidezko ikastaroa da, “on line” erakoa.

Euskara Zerbitzuak egindako zuzenketen datu-basea hartuko da oinarritzat, arazo sail oinarritzkoenetatik abiatu irtenbideak lantzeko. Gainera, ikasle bakoitzak bere arloko testu laburrak landuko ditu.

Ikastaroko foroa erabiliko da kasuan kasuko zalantzak argitzeko eta auzi bakoitzari buruzko jakingarri gehiagoren berri emateko.

EIGA IKASTAROA

Hizkuntza-akreditazioa eskuratzeko azterketa prestatzeko ikastaroa

ARDURADUNA: Ulibarri Euskaltegia

ESKOLA ORDUAK: 63 ordu

IRAUPENA: Hiru hilabete, urtarrila-ekaina bitartean
(hasiera-data norberak zehazten du)

IKASLEAK: 10 ikasle gehienez

NORENTZAT DEN IKASTAROA: UPV/EHUko irakasle-ikertzaileentzat.

ZALANTZAK ARGITZEKO: Joseba Ezeiza (joseba.ezeiza@ehu.eus)

OHARRAK:

- Ikastaro honetan parte hartu ahal izateko, HABEren B2C1 gainditu izana egiaztatu beharko dute parte-hartzaileek.
- Programa honetan ikerketa eta irakaskuntza-zereginetarako beharrezkoa den oinarrizko maila lantzen da.
- Helburu nagusia hauxe: irakasle- zein ikertzaile-kontratu edo plaza elebidunak betetzeko nahitaezkoa hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten azterketa probetara joateko prestatzea.
- Ikastaroa “autoikaskuntza” modalitatean eskaintzen da. Parte-hartzaileak tutore bat izango du, eta ikaskuntzarako hainbat material. Horrez gain, taldeko eta banako saio batzuk ere izango ditu, ahozko gaitasuna indartzea helburu dutenak.
- Guztira 63 orduko dedikazioa du (50 ordu autoikaskuntzan, 10 ordu taldeko saioetan eta 3 ordu banako saioetan).
- Parte hartzaileak 3 hilabeteko epe-muga izango du ikastaroa egiteko, ikastaroan alta ematen den egunetik zenbatzen hasita.
- HABEk homologatutako euskaltegi baten gidaritzapean egingo da ikaskuntza-prozesua, eta HABEk ezarritako prozedurari jarraikiz egingo da ikaslearen lorpenen ebaluazioa.
- Parte-hartzaileak hala eskatzen badu, aztertuko da ikastaroa azterketaren egunera arte luzatzeko aukera, betiere lehen hiru hilabeteetan aprobetxamendua ona izan bada.